

9. GIZARTE EKIMENAREKIKO ELKARLANA

9.1. Irabazi asmorik gabeko elkar-teetarako diru laguntzak

Gizarte ekintzaren Zuzendaritzak bultzatzen dituen **laguntza ekonomikoen helburua elkar-teei laguntzea da**, gizarte ekintzaren arloan egiten duten **elkar-teen lana** bermatuz. Aurkezten diren proiektuen helburu zehatzak orain adierazten ditugun motatakoak izan daitezke:

- Elkar-tearen eguneko jardueraren mantentzea
- Sentsibilizazio eta gizar-teratze ekintzak. Era berezian gizarte arloko boluntarioak lortu eta trebatzera zuzendutako ekintzak
- Elkar-te ekintzen helburu diren kolektiboek zuzenduta dauden esku-hartze programak hedatu. Era berezian, boluntarioek egiten dituzten ekintzak kontutan hartzen dira.

2023ko abuztuaren 8an Tokiko Gobernu Batzarrek 274.800 €-ko laguntza ekonomikoa ematea erabaki zuen gizarte ekintzaren arloan diharduten irabazi asmorik gabeko 82 elkar-terei 124 proiektu diruz lagunduz.

1. eranskinean, 2022an diruz lagundutako elkar-te eta proiektuak zehaztuta agertzen dira.

9.2. Elkar-lanerako hitzarmenak elkar-te eta erakundeekin

2023an, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak **elkar-lan hitzarmenak** sinatu ditu hurrengo erakunde hauekin:

NAGUSILAN eta GURUTZE GORRIA

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin elkar-lanean, adinekoei eta pertsona ezgaituei konpainia eta etxean laguntzeko ekintzetan aritzeko eta ostatu-baliabideetan laguntzeko ekintzak garatzeko.

Bi lankidetzak-hitza-rmenei lotutako zenbatekoa, 2023an, 8.166 eurokoa izan da.

DYA

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin elkar-lanean, pertsonen eta taldeen garraio beharrak betetzeko, Udalaren gizarte lanaren edozein esparrutan.

2023ko lankidetzak-hitza-rmenak jasotzen duen kopurua 8.166 eurokoa da.

AFAGI (Alzheimerre dutenen Senitartekoen Gipuzkoako Elkar-tea)

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin lankidetzan, psikoestimulazio kognitiboko prebentzio programa bat hedatzeko. Alzheimerrearen hasierako fasean dauden edo beste demenzia sindrome bat diagnostikatuta duten adinekoentzat zuzenduta.

2023ko lankidetzak-hitza-rmenak jasotzen duen kopurua 36.080 eurokoa da.

9.3. Irabazi asmorik gabeko elkarteen egoitzetarako edota beraien jarduerak burutzeko lokalak lagatzea

Udalerrian lan egiten duten erakundeekiko lankidetzaz-ildo hori **jarduera garatzeko udal-lokalen erabilera lagatzean** gauzatzen da.

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza gizarte arloan lan egiten duten erakundeen alde egindako 20 lokal lagapenen arduraduna da.